ISoCaRP

HIRIGILEEN NAZIOARTEKO ELKARTEA
ASOCIACIÓN INTERNACIONAL DE URBANISTAS

Hirigileen Nazioarteko Elkartea (ISoCaRP) 1965. urtean eratu zen, kualifikazio handiko hirigileak nazioarteko sare batean biltzearren. ISoCaRP sarea 70 herrialde baino gehiagoko norbanakoek eta erakundeek osatzen dute. ISoCaRP gobernuz kanpoko erakunde bat da, Nazio Batuen Erakundeak, UNHCS erakundeak eta Europako Kontseiluak aintzatesten dutena, eta UNESCOrekin elkarlanean dihardeuna.

ISoCaRP-en helburuek hirigintza-praktika hobetzea dute oinarri, eta, horretarako, hirigileen sare aktiboa eta orokorra eratu da. ISoCaRP-ek hirigileen arteko trukea sustatzen du, lanbide hori eragiten du, ikerketa eta heziketa bultzatzen ditu, eta hiri-gai nagusien informazioa eta ezagutza sustatzen du. Helbururik nagusiena hirien etorkizunari buruzko gogoeta adimentsua suspertzea da.

ISoCaRP-en urteko egintza nagusia Munduko Biltzarra da, hirien arloko gaurkotasun eta garrantzi handiko gai jakin batean oinarritzen dena. Biltzarra, urtez urte, hiri desberdinetan egiten da, eta, ahal izanez gero, kontinentea ere aldatzen da. ISoCaRP-ek, halaber, eskala txikiagoko mintegiak antolatzen ditu, eta txostenak eta beste dokumentu profesional batzuk ematen ditu argitara. ISoCaRP, bestalde, hirigintza arloko nazioarteko gertakizunik garrantzitsuenetan agertzen da.

La Asociación Internacional de Urbanistas (ISoCaRP) es una asociación global de prestigiosos urbanistas. Se fundó en 1965 con el fin de reunir a urbanistas altamente cualificados en una red internacional. La red ISoCaRP la componen individuos e instituciones de más de 70 países. ISoCaRP es una organización no-gubernamental reconocida por la ONU, UNHCS y el Consejo de Europa, y además colabora con la UNESCO.

Los objetivos de ISoCaRP incluyen el perfeccionamiento de la práctica urbanística a través de la creación de una red activa y global de urbanistas. ISoCaRP fomenta el intercambio entre urbanistas, promueve la profesión en todos los sentidos, estimula la investigación, mejora la educación y formación, e incrementa la información y el conocimiento de los grandes temas urbanos. El principal objetivo es estimular una reflexión inteligente sobre el futuro de las ciudades.

El principal evento anual de ISoCaRP es el Congreso Mundial, que se centra en un tema internacional de actualidad en el urbanismo. El congreso tiene lugar en ciudades distintas cada año, preferiblemente en distintos continentes. ISoCaRP organiza también seminarios a pequeña escala y publica informes y otros documentos profesionales. ISoCaRP está presente en los mayores acontecimientos internacionales en materia de urbanismo.

AIU · IGSRP · ISoCaRP

ISoCaRP-EN BILTZARRAK
LOS CONGRESOS DE ISoCaRP



Azken lau hamarkadetan, ISoCaRP-en Munduko Biltzarrak aukera paregabea izan dira 70 herrialde baino gehiagotako hirigileen arteko eztabaidarako eta elkarlanerako. Gainera, biltzar horietako ondorioak oso baliagarriak izan dira gure hirietako eta eskualdeetako bilakaera bideratzeko.

Aurten, Bilbon egingo da ISoCaRP-en 2005eko Munduko Biltzarra, eta Biltzarraren gai nagusia "Sormen Ekonomiarako Espazioak" izango da. Hiri batzuetan "sormen-ekonomia" biz dadin sustatzeko egiten ari diren aldaketarik berrienetan oinarrituko da biltzarra.

Kualifikazio handiko profesionalek (hirigileek, arkitektoek, ekonomilariek, soziologoek, politikoek eta agintariek) beren esperientziak aurkeztuko dituzte Bilbon, eta etorkizuneko hirien diseinurako gaurkotasun handieneko gaietako baten inguruan eztabaidatuko dute.



Munduko hiri askotan ekonomia teknologikoagorako eta digitalizatuagorako joera nagusi da, eta sormen handieneko profesionalek protagonismo handia dute norabide aldaketa horretan. Testuinguru horretan, gero eta interes handiagoa dago artearekin, kulturarekin eta beste sormen-industria batzuekin. Bilbo hiri anfitrioi ezin hobea da gai hori aztertzeko. Bilborengandik ikas dezakegu, eta Bilbok sormen handiagoko ekonomia baterantz aldatzeko bidean dituen erronkak erreferentzia hobeekin eta berme handiagoekin bideratu ahal izango ditu Biltzar honen ondoren.

Bilbon elkartzeko gonbitea egiten dizuet, ISoCaRP-en Biltzarra ahaztezina izango delakoan.

Alfonso Vegara
ISoCaRP-en lehendakaria
Presidente, ISoCaRP

A lo largo de cuatro décadas, los Congresos Mundiales de ISoCaRP han sido un importante foro de debate y colaboración entre urbanistas de más de 70 países. Las conclusiones de estos Congresos están sirviendo para orientar la evolución de nuestras ciudades y regiones.

Este año, la ciudad de Bilbao acogerá el Congreso Mundial ISoCaRP 2005 en torno al tema: "Espacios para la Economía Creativa". El Congreso se centrará en las transformaciones más recientes que algunas ciudades están afrontando para propiciar la emergencia de la "economía creativa".

Profesionales altamente cualificados: urbanistas, arquitectos, economistas, sociólogos, políticos y autoridades, presentarán en Bilbao sus experiencias y debatirán sobre uno de los temas de mayor actualidad para el diseño de las ciudades del futuro.

En muchas ciudades del mundo, existe un cambio de dirección hacia una economía más tecnológica y digital, en la que los profesionales más creativos tienen un gran protagonismo. En este contexto, hay un interés creciente por el arte, la cultura y otras industrias creativas. Bilbao es una Ciudad Anfitriona perfecta para abordar estas temáticas. Podemos aprender de Bilbao y Bilbao podrá enfocar sus retos de transformación hacia una economía creativa con más referencias y con mejores garantías tras este Congreso.

Os invito a reuniros en Bilbao para lo que promete ser un inolvidable Congreso de ISoCaRP.



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

BILBAO Ría 2000

FUNDACIONMETROPOLI

AIU · IGSRP · ISoCaRP

ISoCaRP
International Society
of City and
Regional Planners

Headquarters
P.O. Box 983
2501 CZ The Hague
The Netherlands
Tel +31 70 3462654
Fax +31 70 3617909

Project Office
Ayuntamiento de Sitges,
Catalunya

isocarp@isocarp.org
www.isocarp.org

SORMEN EKONOMIARAKO ESPAZIOAK
ESPACIOS PARA LA ECONOMÍA CREATIVA

MUNDUKO BILTZARRA, 2005
CONGRESO MUNDIAL, 2005

ISOCARP, HIRIGILEEN NAZIOARTEKO ELKARTEA
ISOCARP, ASOCIACION INTERNACIONAL DE URBANISTAS

BILBON, 2005EKO URRIAREN 17AN ETA 20AN **BILBAO, 17–20 OCTUBRE 2005**

ISOCARP

ONGIETORRIKO MEZUA
MENSAJE DE BIENVENIDA

Bilbo, Euskal Herriko hiriburu ekonomikoa, berregituratze-prozesu handi batean murgilduta dago, mende berri honi modurik arrakastatsuenean aurre egiteko aukera emango dion prozesu batean.

Mundu osoan ezaguna den Guggenheim Museoa ikono duen gure hiria hiri-berrikuntzako erreferente bihurtu da nazioartean. Iragana eta geroa uztartzen ditu, baina historian zehar definitu den nortasunari eutsi dio.

Gaur egun oso metro modernoa dugu, baita tranbia berria ere; hotel berriak ditugu; biltzarretarako eta musikarako jauregi berria dugu; eta beste azpiegitura garrantzitsu asko. Itsasadarra suspertzen ari gara, eta lehen industria-nahaspilez beteta zeuden itsasadarraren ertzetan pasealekuak eraiki dira. Halaber, hobekuntza agerikoa da hiriko hainbat barrutitako eta auzotako hiri-espazioetan.

Harro nago hiriaren aldaketarekin, baina, nire iritziz, aurrera egiten jarraitu behar dugu. Beste proiektu batzuk jarri dira abian, eta funtsezkoa da aldaketako eta hobekuntzako izpirituari eustea, aurrera egiteko ez ezik, gizarte-kohesioko balio indibidual eta kolektiboak sortzeko ere; izatez, kultura askotariko gizarte plural eta guztiz demokratiko eta solidario baten berezkoa da balio horiek sortzea. Baliorik ez badago, ez dago proiektu kolektiborik. Gure zilborrari begira, geldirik, geratzen bagara eta aldaketaren aldeko inplikazio kolektiborik ez badago, oso zaila izango da aurrera egiten jarraitzea.

Atsegin handiz ematen dizuet ongietorria gure hirian egingo den ISoCaRP-en 2005eko Nazioarteko Biltzarrera, hirien eta, jakina, Bilboren etorkizunerako funtsezko gaia aztertuko duen Biltzar honetara hain zuzen ere.

Iñaki Azkuna
Bilboko alkatea
Alcalde de Bilbao

Bilbao, la capital económica del País Vasco, es una ciudad inmersa en un proceso de reestructuración que le permitirá afrontar este nuevo siglo con las mejores perspectivas de éxito.

Nuestra ciudad, con el mundialmente conocido Museo Guggenheim como icono, se ha convertido en un referente internacional en materia de renovación urbana, integrando pasado y futuro, y conservando la identidad que ha ido definiéndose a lo largo de siglos de historia.

Hoy en día contamos con un modernísimo metro y un nuevo tranvía, nuevos hoteles, nuevo palacio de congresos y de música, y otras importantes infraestructuras. Estamos revitalizando la ría y en sus márgenes, antes repletas de tinglados industriales, se han construído paseos. Igualmente la mejora es ostensible en diferentes espacios urbanos de los distintos distritos y barrios de la Villa.

Estoy orgulloso de la transformación de nuestra ciudad, pero considero que debemos seguir adelante. Hay nuevos proyectos en marcha, por lo que es importante que mantengamos el espíritu de transformación y de mejora. No sólo para progresar sino también para que surjan valores individuales y colectivos de cohesión social, propios de una sociedad plural, multicultural, y profundamente solidaria y democrática. Si no hay valores, no puede haber proyectos colectivos. Si nos detenemos observándonos nuestro propio ombligo y no existe una implicación colectiva en la transformación, será muy difícil seguir progresando.

Me complace daros la bienvenida al Congreso Internacional de ISoCaRP 2005 que acoge nuestra ciudad, que aborda un tema que considero clave para el futuro de las ciudades, y por supuesto de Bilbao.

PROGRAMA / PROGRAMA

BILTZARRAREN AURRETIK / PRE CONGRESO

IGANDEA, URRIAREN 16A		DOMINGO, 16 DE OCTUBRE
Nazioarteko biltzarkideen iritsiera eta erregistroa	09:00	Llegada de congresistas internacionales y registro
"Young Planners" eta "Urban Task Force" tailerren ondorioen aurkezpena	18:30	Presentaciones de los resultados de los Talleres "Young Planners" y "Urban Task Force"
"Young Planners" tailerren 15. urteurrenaren ospakizuna	20:00	Celebración 15 años de los Talleres "Young Planners"
Ongietorriko harrera	20:30	Recepción de bienvenida

ASTELEHENA, URRIAREN 17A		LUNES, 17 DE OCTUBRE
Izen-ematea eta erregistroa	09:00	Inscripción y registro
Ongietorriko hitzak	10:00	**Palabras de bienvenida**
IÑAKI AZKUNA, *Bilboko alkatea*		**IÑAKI AZKUNA**, *Alcalde de Bilbao*
ALFONSO VEGARA, *ISoCaRP-en lehendakaria*		**ALFONSO VEGARA**, *Presidente de ISoCaRP*
FERNANDO NUÑEZ DA SILVA, *Biltzarreko Raporteur Nagusia*		**FERNANDO NUÑEZ DA SILVA**, *General Raporteur del Congreso*
Coffee Break	11:00	Coffee Break
Txostenak, I	11:30	**Ponencias Plenarias I**
ALBERT SPEER, *"The Challenge of Combined Environmental Space Uses and the Economy"*		**ALBERT SPEER**, *"The Challenge of Combined Environmental Space Uses and the Economy"*
CHARLES LANDRY, *"The Creative City or the Creative Economy"*		**CHARLES LANDRY**, *"The Creative City or the Creative Economy"*
Otordua	13:30	Almuerzo
Txostenak, II	16:00	**Ponencias Plenarias II**
MANHATTAN. THOMAS WRIGHT, *"Creativity at the Water's Edge"*		**MANHATTAN. THOMAS WRIGHT**, *"Creativity at the Water's Edge"*
SINGAPORE. ARTHUR AW, *"The One North Initiative"*		**SINGAPORE. ARTHUR AW**, *"The One North Initiative"*
BILBAO. ARIELLA MASBOUNGI, *"Lessons from Bilbao"*		**BILBAO. ARIELLA MASBOUNGI**, *"Lessons from Bilbao"*

ASTEARTEA, URRIAREN 18A		MARTES, 18 DE OCTUBRE
Alkateen Gailurra	16:00	**Cumbre de Alcaldes**
Aurkezpenak eta munduko hiririk berritzaileenetako batzuetako alkateen arteko eztabaidak		*Presentaciones y debates con los alcaldes de algunas de las más innovadoras ciudades del mundo*
Afari-koktela	21:30	Cena-Cóctel
ISoCaRP-en 40. urteurrenaren ospakizuna. "IsoCaRP Awards for Excellence" [Museo Guggenheim]		**Celebración 40º aniversario ISoCaRP.** "ISoCaRP Awards for Excellence" [Museo Guggenheim]

ASTEAZKENA, URRIAREN 19A		MIERCOLES, 19 DE OCTUBRE
Saio Paraleloak	09:00	**Sesiones Paralelas***
Nazioarteko Ikerketak eta kasu praktikoak		*Investigaciones y Casos Prácticos Internacionales*
Saio Paraleloak (jarraipena)*	11:30	**Sesiones Paralelas (continuación)***
Coffee Break	11:00	Coffee Break
Otordua (libre)	13:30	Almuerzo (libre)
Saio Paraleloak (jarraipena)*	16:00	**Sesiones Paralelas (continuación)***

OSTEGUNA, URRIAREN 20A		JUEVES, 20 DE OCTUBRE
Otordua (libre)	13:30	Almuerzo (libre)
ISoCaRPEN Biltzar Nagusia (Deustua)*	09:00	Asamblea General de ISoCaRP (Deusto)**
Itxiera-ekitaldia (Deustua)*	16:00	Clausura Asamblea General (Deusto)**
Biltzarreko emaitzen laburpena eta ondorioak		*Síntesis y conclusiones*
2006ko Biltzarraren aurkezpena		*Presentación del Congreso 2006*

BILTZARRAREN ONDOREN / POST CONGRESO

OSTIRALA, URRIAREN 21A		VIERNES, 21 DE OCTUBRE
Irteera Bilbotik	09:00	Salida de Bilbao
Pasaiako Badian zeharreko ibilbidea autobusez		Recorrido en autocar por la Bahía de Pasaia
Chillida Lekurako bisita		Visita a Chillida Leku
Pasaiako Badiaren etorkizuneko proiektuei buruzko "interactions" elkarrekintzak [Hotela Londres]		"Interactions" sobre los proyectos de futuro de la Bahía de Pasaia [Hotel Londres]
Koktela eta denbora librea Donostian		Cóctel y visita libre a Donostia San Sebastián
Bilborako itzulera	18:30	Vuelta a Bilbao

LARUNBATA, URRIAREN 22A		SABADO, 22 DE OCTUBRE
Irteera Bilbotik	09:00	Salida de Bilbao
Arabako Errioxako ardoaren paisaietan zeharreko ibilbidea		Recorrido por los paisajes del vino de La Rioja Alavesa
Ardoaren lurraldeei buruzko "interactions" elkarrekintzak [Rioja Forum]		"Interactions" sobre "Los Territorios del Vino" [Rioja Forum]
Upeltegira bisitaldia eta Biltzarra agurtzeko bazkaria		Visita a bodega y almuerzo de despedida del Congreso.
Bilborako itzulera	18:30	Vuelta a Bilbao

* Saioa ingelesez
** Soilik Isocarp-eko kideentzako saioa

* Sesiones en idioma inglés (sin traducción)
** Sesiones reservadas a miembros de Isocarp

TXOSTENAK / PONENCIAS PLENARIAS

ALBERT SPEER:
THE CHALLENGE OF COMBINED ENVIRONMENTAL SPACE USES AND THE ECONOMY / THE CHALLENGE OF COMBINED ENVIRONMENTAL SPACE USES AND THE ECONOMY

Albert Speer Alemaniako hirigilerik ospetsuenetako bat da. 1972. urteaz geroztik, Kaiserslautem-go Unibertsitateko irakaslea da, eta, 1970. urteaz geroztik, Hiri Diseinuko eta Estatu Plangintzako Alemaniako Akademiako kidea. Bere bulegoa, AS&P, Frankfurt-en dago, baina lan handia egiten du nazioarte mailan. Txinan, Kroazian, Belizen, Yemenen eta Saudi Arabian ditu proiektuak. 2003. urtean, izen handiko Goethe domina eman zion Frankfurt-eko hiriak.

Albert Speer es uno de los más destacados urbanistas de Alemania. Desde 1972 ha sido profesor en la Universidad de Kaiserslautem, y desde 1970 es miembro de la Academia Alemana de Diseño Urbano y Planeamiento. Su estudio, AS&P, ubicado en Frankfurt, tiene gran actividad a nivel internacional, con proyectos en China, Croacia, Belize, Yemen y Arabia Saudi. En 2003 la ciudad de Frankfurt le concedió la prestigiosa medalla Goethe.

CHARLES LANDRY:
THE CREATIVE CITY OR THE CREATIVE ECONOMY / THE CREATIVE CITY OR THE CREATIVE ECONOMY

Charles Landry-k izen handia du, nazioarte mailan, hirien etorkizunari buruzko prospektibaren arloan. Bere ibilbide profesionalean balio handiko esperientzia metatu du kultura hiriaren suspergarri gisa erabiltzen. "Comedia" aholkularitzako sortzailea da, eta aholkularitza hori da, hain zuzen ere, Europan nagusi sormen-espazioak diseinatzeari dagokionez. 2000. urtean "The Creative City: A toolkit for urban innovators" liburua argitaratu zuen.

Charles Landry está considerado como una autoridad internacional en prospectiva sobre el futuro de las ciudades. En su trayectoria profesional ha acumulado una experiencia valiosa en el uso de la cultura para la revitalización de la ciudad. Es el fundador de "Comedia", consultora, líder en Europa en el diseño de espacios creativos. En 2000 publicó el libro "The Creative City: A toolkit for urban innovators".

THOMAS WRIGHT:
MANHATTAN MEATPACKING DISTRICT'S COOL: CREATIVITY AT THE WATER'S EDGE / MANHATTAN MEATPACKING DISTRICT'S COOL: CREATIVITY AT THE WATER'S EDGE

New York-eko Plana (RPA) idazten ari den Elkarteko lehendakariordea da Thomas K. Wright. Halaber, Columbiako Unibertsitateko irakaslea da, bertan giza kudeaketako eta eskualde-plangintzako ikastaroak ematen ditu. Bestalde, Lincoln Institutuko Lurralde Politikako fakultaterako egin du lan, eta munduko leku askotan hitzaldiak eman ditu lurralde-kudeaketari buruz, eskualde-plangintzari buruz, industria-eremu zaharkituak berritzeari buruz, eta abar.

Thomas K. Wright es Vice-Presidente Ejecutivo de la Asociación que redacta el Plan de Nueva York (RPA). Es también profesor en la Universidad de Columbia, donde imparte cursos de gestión urbana y planeamiento regional. Ha trabajado para la facultad de Política Territorial del Instituto Lincoln, y ha pronunciado conferencias en muy diversos lugares del mundo sobre gestión territorial, planeamiento regional y renovación de zonas industriales obsoletas.

ARTHUR AW:
SINGAPORE ONE-NORTH INITIATIVE: WHERE IDEAS GROW / SINGAPORE ONE-NORTH INITIATIVE: WHERE IDEAS GROW

JTC Corporation agentzia publikoko Lurralde Antolamenduko zuzendaria da Arthur Aw. Izatez, agentzia publiko hori Singapur-eko industria-espazioen arduraduna da. 1999. urtean JTC agentzian sartu zenetik, One North-eko plangintza ikuskatu du, sorreratik lehen eraikinen diseinura arte, Biopolis. Horrez gain, JTCren ekonomia-jarduerarako hainbat arlo leheneratzeko planak zuzentzen ditu.

Arthur Aw es Director de Ordenación del Territorio de JTC Corporation, agencia pública responsable de los espacios industriales de Singapur. Desde que entró en JTC en 1999, ha supervisado el planeamiento de One North desde la concepción hasta el diseño de los primeros edificios, la Biopolis. Además, dirige planes de recuperación de varias áreas de actividad económica de JTC.

ARIELLA MASBOUNGI:
LESSONS FROM BILBAO / LESSONS FROM BILBAO

Frantziar Estatuko arkitekto eta hirigile hau Ekipamendu, Garraio, Etxebizitza, Turismo eta Itsasoko Ministerioaren "Hiri Proiektua" egitasmoko arduraduna da. Hiri Proiektuko lantegiak antolatzen eta zuzentzen ditu. Izatez, lantegi horietan, tokiko kolektiboen hiri-proiektuen inguruko gai nagusiak eztabaidatzen dira, baita Frantziako eta Europako hirien "erradiokopiak" ere. Gainera, lantegi horietan, arlo horietako esperientziak eta ideiak trukatzen dira.

Arquitecto-Urbanista del Estado francés. Encargada de la misión "Proyecto Urbano" del Ministerio de Equipamiento, Transporte, Vivienda, Turismo y del Mar. Organiza y dirige los talleres de Proyecto Urbano, lugares de intercambio y debate en torno a los grandes temas que rodean los proyectos urbanos, y en torno a "radioscopias" de ciudades francesas y europeas.

ALKATEEN GAILURRA / CUMBRE DE ALCALDES

Genevako 2004ko Nazioarteko Biltzarrean egin zen ISoCaRP-en lehen Alkateen Gailurra. Arrakasta itzela izan zuen gailur horretan, Anberes, Bilbo, Bordele, Curitiba, Casablanca, Dakar, Dublin eta Genevako alkateek hartu zuten parte. Bilboko Alkateen Gailurra ere 2005eko Biltzarreko egintza garrantzitsua izango da. Bilbo hiri egokia da munduko hiririk berritzaileenetako batzuetako alkateak elkartzeko, eta Sormen Ekonomia Berriko hiriek aurrean dituzten aldaketen eta aukeren inguruan eztabaidatzeko. Gailurrari esker, Biltzarrera bertaratzen direnak zuzenean jarriko dira harremanetan gailurrean parte hartzen duten hirietako alkateekin.

Hirigile, politikari eta akademikoak bilduko dira bertan. Hala, ISoCaRP-en Alkateen Gailurra hiri-gogoetarako foro garrantzitsua izango da, eta hirien arteko elkarlanerako plataforma bihurtuko da.

La primera Cumbre de Alcaldes de ISoCaRP se celebró con gran éxito en el Congreso Internacional de 2004, en Ginebra, y contó con la participación de Amberes, Bilbao, Burdeos, Curitiba, Casablanca, Dakar, Dublín y Ginebra. La Cumbre de Alcaldes de Bilbao será también un evento importante del Congreso de 2005. Bilbao es el escenario ideal para reunir a alcaldes de algunas de las ciudades más innovadoras del mundo para debatir los cambios y oportunidades a los que se enfrentan las ciudades de la Nueva Economía Creativa. La Cumbre dará la oportunidad de que los asistentes al congreso entren en contacto directo con los líderes de las ciudades participantes.

Con la asistencia de urbanistas, políticos y académicos, la Cumbre de Alcaldes de Isocarp aspira a ser un importante foro de reflexión urbana y una plataforma para la cooperación entre ciudades.

GUGGENHEIM KOKTELA
SARIAK: "ISOCARP-EN BIKAINTASUN SARIAK"
PREMIOS "ISOCARP AWARDS FOR EXCELLENCE"
CÓCTEL GUGGENHEIM

"ISoCaRP Award for Excellence" Bikaintasun Sariak Guggenheim Museoaren atarian emango dira. Hirigileen Nazioarteko Elkarteak hiri bati edo erakunde bati ematen dion aintzatespenik handiena da sari hori. Biltzarraren gaia, "Sormen Ekonomiarako Espazioak", nazioarte mailan hobe irudikatu duten hiri-ekimenak garatzeagatik ematen dira sariak.

Erakunde sarituek Guggenheim Museoaren atarian egingo dugun zeremonia berezian jasoko dute saria, nazioarte mailan hiri-bikaintasuneko eta berrikuntzako erreferentzia den saria. Ondoren, koktela eskainiko da, eta ISoCaRP-en 40. urteurrena ospatzeko argitara eman den "Isocarp 4 decades of knowlegde, creation and sharing" liburua banatuko da.

La entrega de los premios "ISoCaRP Award for Excellence" tendrá lugar en el atrio del Museo Guggenheim. Este premio es el mayor reconocimiento que la Asociación Internacional de Urbanistas otorga a una ciudad o institución por haber desarrollado las iniciativas urbanas que mejor expresen a nivel internacional el tema del Congreso "Espacios para la Economía Creativa".

Las instituciones ganadoras recibirán el premio en esta ceremonia especial que celebraremos en el Museo Guggenheim, referencia internacional de excelencia urbana e innovación. A continuación se ofrecerá un cóctel y se hará entrega del libro "Isocarp 4 decades of knowlegde, creation and sharing" editado para celebrar el 40 aniversario de ISoCaRP.

SAIO PARALELOAK / SESIONES PARALELAS

Munduko 70 herrialdetako hirigileek aurkeztutako proposamenen artean interes zientifiko handiena duten 100 "case studies" inguru eztabaidatuko dira.

1. ESTRATEGIAK. Testuinguru kulturalari, ingurune teknologikoari eta hiri-ingurumenari buruzko gogoetak, sormen-ekonomia gara dadin errazteko beharrezkoak.

2. SORMEN EKONOMIARAKO HIRI INGURUNEAK SORTZEA ETA ESPAZIOA ANTOLATZEA. Hiriak sektore berri horrekin lotzen diren ekimenak jasotzeko bidera ditzakeen ekintzak aztertzea.

3. HIRIGILEAREN ZEREGIN BERRIA. Ikuspegi berriak, lanerako metodoak, tresnarik berritzaileenak eta diziplina arteko elkarlana, hiriaren plangintza eta kudeaketa garatzeko.

4-5. "MARKET PLACE". Hirigilearen lan-jarduerarekin lotzen diren esperientzia, proiektu eta ekimen garrantzitsuak aurkezteko eta eztabaidatzeko plataforma irekia.

Se debatirá en torno a 100 "case studies" seleccionados por su interés científico entre las propuestas presen-tadas por urbanistas de 70 paises del mundo.

1. ESTRATEGIAS. *Reflexiones acerca del contexto cultural, el entorno tecnológico y el ambiente urbano necesarios para favorecer el desarrollo de la economía creativa.*

2. ORGANIZACIÓN ESPACIAL Y CREACIÓN DE ENTORNOS URBANOS PARA LA ECONOMÍA CREATIVA. *Estudio de las acciones que la ciudad puede emprender para acoger iniciativas relacionadas con este nuevo sector.*

3. EL NUEVO PAPEL DEL URBANISTA. *Los nuevos enfoques, los métodos de trabajo, los instrumentos más innovadores y la colaboración interdisciplinar para desarrollar el planeamiento y la gestión de la ciudad.*

4-5. "MARKET PLACE". *Una plataforma abierta para presentar y debatir experiencias, proyectos e iniciativas relevantes relacionados con la actividad profesional del urbanista.*

BILTZARRAREN AURRETIK
HIRIGINTZA TAILERRAK
PRE CONGRESO
TALLERES DE URBANISMO

HIRIGILE GAZTEEN "UNESCO/ISOCARP" TAILERRA
[Urriaren 13tik 16ra, Bilbao Arte] Munduko hainbat herrialdetako 20 hirigile gaztek osatuko duten tailerra, tartean Euskadiko 5. "Bilbo Zaharra, sormenerako espazioa" gaiaren inguruan egingo dute lan.

HIRIGILE GAZTEEN "VROM" TAILERRA (HOLANDAKO ETXEBIZITZA, LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN MINISTERIOA)
[Urriaren 13tik 16ra, Bilbao Arte] Munduko hainbat herrialdetako 10 hirigile gaztek osatuko duten tailerra. "Randstad-aren (Holanda) hegoaldeko lurraldeen lehiakortasuna" gaiaren inguruan egingo dute lan.

URBAN TASK FORCE "ISOCARP-SITGES"
[Urriaren 13tik 16ra, Sitges-eko Udala] ISOCARPeko hirigile adituen talde batek "Trenbidea eta Hiria" aztertuko du Sitges-en.

TALLER DE JÓVENES URBANISTAS "UNESCO/ISOCARP"
[13 a 16 de Octubre, Bilbao Arte] *Taller formado por 20 jóvenes urbanistas de diferentes países del mundo, incluidos 5 de Euskadi, que trabajarán en torno al tema: "Bilbao La Vieja como un Espacio para la Creatividad"*

TALLER DE JÓVENES URBANISTAS "VROM" (MINISTERIO HOLANDÉS DE VIVIENDA, ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE)
[13 a 16 de Octubre, Bilbao Arte] *Taller formado por 10 jóvenes urbanistas de diferentes países del mundo que trabajarán sobre el tema: "Competitividad Territorial del Sur del Randstad, Holanda".*

URBAN TASK FORCE "ISOCARP-SITGES"
[13 a 16 de Octubre, Ayuntamiento de Sitges] *Un grupo de expertos urbanistas de ISOCARP estudiarán el tema "El ferrocarril y la ciudad" en Sitges.*

BILTZARRAREN ONDOREN
TAILER MUGIKORRAK
POST CONGRESO
TALLERES MÓVILES

Tailer Mugikorrak aukera paregabea dira lurralde berezietan gaur egun garatzen ari diren hiri-ekimenak eta -proiektuak bertatik bertara ezagutzeko. Honako gaiak hautatu dira:

[Urriaren 21a] **PASAIAKO BADIA BERRASMATZEN**
Donostia eta Pasaiako Badia bisitatzea. Pasaiako Badia birsortzeko lanak aurkeztea eta eztabaidatzea, bertako gidariekin elkarrekintzan.

[Urriaren 22a] **ARDOAREN LURRALDEEN ETORKIZUNA**
Arabako Errioxa eta bertako upeltegi bat bisitatzea. Ardoaren lurraldeen etorkizuna aurkeztea eta eztabaidatzea. Agurreko otordua.

Los Talleres Móviles son una oportunidad para conocer de primera mano iniciativas y proyectos urbanos de actualidad sobre territorios singulares. Se han elegido los siguientes temas:

[21 de Octubre] **REINVENTANDO LA BAHÍA DE PASAIA**
Visita a Donostia y a la Bahía de Pasaia. Presentación y debate en torno a la regeneración de la Bahía de Pasaia, interacción con los líderes locales.

[22 de Octubre] **EL FUTURO DE LOS TERRITORIOS DEL VINO.** *Visita a la Rioja Alavesa y a una bodega. Presentación y debate sobre el Futuro de los Territorios del Vino. Almuerzo de despedida.*